# NONDIK, NOREN ETA NONGO

**Gogoratu!**

**Nondik** deklinabide-kasuak *nondik?* galderari erantzuten dio.

- Izen arruntek bi atzizki hartzen dituzte: *-(e)tik* (singularra) eta *-etatik* (plurala).

  *Teilatutik elurra jausi da. / Teilatuetatik elurra jausi da.*

  *Gailurretik deitu digute. / Gailurretatik deitu digute.*

- Izen bereziek *-tik* edo *-etik* atzizkia hartzen dute.

  *Eatik eta Eibarretik iritsi dira autobusak.*

**1) Aukeratu erantzun zuzena esaldi bakoitzean.**

Aitor eta Nahia oso berandu etorri dira ………………………

Pinosoloko …………………… deitu didate; bihar hasiko dira udako ikastaroak

Nondik zatoz hain berandu? - …………………, oso ondo pasatzen ari genuen

Eskolako ……………………. haizea sartu zen eta gelako atea itxi zuen.

Anboto mendiko ……………………… Gasteiz ikusi daiteke.

Astrabuduako ………………….. ibili ginen jolasean. Baina ez ginen gure ……………………… atera.

Atzo …………………… abiatu zen 19. Korrika.

Zizare askok ……………………….. ibiltzen dira ezkutatu nahian.

**2) Kokatu hitz bakoitza dagokion tokian**

Nire ama eta biok futbolean ari ginela, parkeko [ ] zehar jausi zen baloia.

Ez dakit zenbat egun pasa genituen, baina [ ] atera ginenean oso pozik sentitu ginen.

Negua iristean, herriko [ ] kea ateratzen hasten da, jendeak beheko sua pizten dutelako.

Suhiltzaileek, beraien [ ] igo ziren Aneren katua salbatzeko.

| etxetik | eskaileratik | etxeetatik | eskaileretatik |

## EZ AHAZTU!

**Noren** kasuak *noren?* galderari erantzuten dio, eta jabetza adierazten du.

- Izen arruntek bi atzizki hartzen dituzte: *-aren* (singularra) eta *-en* (plurala).

*Ikusi dituzu umearen zapatak? / Ikusi dituzu umeen zapatak?*

- Izen bereziek *-ren* edo *-en* atzizkia hartzen dute.

*Idoia Amaiaren eta Julenen ama da.*

**3) Aukeratu erantzun zuzena esaldi bakoitzean.**

……………………. amari igeriketan egitea gustatzen zaio.

Gure ……………………… jostailuak ezin dira ahora sartu.

Nire ……………………….. txabola oso handia da, baina ……………………… kristalak apurtuta daude.

Norena da pilota hau? – Pilota hori…………………………… da.

Nik bi liburu ditut eta ………………………… azalak apurtuta daude.

**4) Idatzi erantzun egokia. Kontuz letra larriekin! Gogoratu izen bereziak eta esaldi hasieran letra larria erabili behar dela**

*Adibidez:*

- *Noren arkatza apurtu da? (Miren). **Mirenen** arkatza apurtu da.*

- **Noren jostailuak galdu dira**? (Aitor)……………………. jostailuak galdu dira.
- **Noren ipuina da politena**? (Joana)……………………. ipuina da politena.
- **Noren eguna ospatzen da gaur**? (umeak)……………………. eguna ospatzen da gaur.
- **Noren erlojua erori da uretara**? (umea)……………………... erlojua erori da uretara.

## KONTUAN IZAN!

**Nongo** kasuak *nongo?* galderari erantzuten dio.

- Izen arruntek bi atzizki hartzen dituzte: *-(e)ko* (singularra) eta *-etako* (plurala).

*Irratiko albisteak entzun ditut. / Irratietako albisteak entzun ditut.*

*Zuhaitzeko sagarrak jaso ditut. / Zuhaitzetako sagarrak jaso ditut.*

- Izen bereziek *-eko* edo *-ko* atzizkia hartzen dute.

*Zarautzeko eta Debako osaba-izebak etorri dira.*

**5) Aukeratu erantzun zuzena esaldi bakoitzean.**

Zer hiritakoa da zure aita? ………………………. da nire aita.

Zer irakasgaiko irakaslea da Iñigoren ama?.................... irakaslea da Iñigoren ama.

Nongo liburuak ditu neskak eskuetan? ……………………. liburuak ditu neskak eskuetan.

Zein mendiko gailurrean dago Mariren Koba?.................mendiko gailurrean dago.

Nongo ura edaten dute animalia askok? ……………………..ura edaten dute animalia askok.

Zer komunikabideko berriak entzuten dituzu? …………………….berriak entzuten ditut.